

## **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIOA KANALAK**

Balorezko proposamena bezeroengana ailegatu dadin, gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu-segmentuetaraino nola iristen den deskribatuko dugu.

Kanalen barnean, honako alderdiak bereizituko ditugu: Komunikazio kanalak, banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak. Kasu guztietan, bezeroarekiko harreman-puntuak dira, kanal bat osatzen duten bost fase bereziak zehazten dituztenak: pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoa.

Bi kanal bereizi ditzakegu:

- a) **Kanal zuzenak**, hots, bitartekariak saihesten dituztenak. Komertzialen talde batek osatutako salmenta indarra edota Internet bidezko online salmenta denda bat izan daitezke.
- b) **Zeharkako kanalak**, hau da, dendak (propioak edota elkartuak) eta dendei handizkako salmenta egiten dieten handizkariak.

**Kanal propioak** honakoak dira: Salmenten Indarra, Internet bidezko Salmentak eta, izatekotan, baita gure denda propioak ere.

**Kanal elkartuak**: elkartutako dendak eta handizkariak.

### **Gure proiektuaren banaketa eta komunikazioa kanalak:**

Elkarte desberdinetara joango gara, gure aplikazioa azalduko diegu hitzaldi bat emanez. Gainera, desgaitasunak dituzten ikasleen institutueta joango gara, gure aplikazioa eskaintzera. Gero, Interneten ere webgune bat izango dugu antolatutako ekintzen irudiak ikusi ahal izateko eta interesa pizten badie aplikazioa deskargatzeko aukera izateko.